



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

JON GIL BELTZA JAUNAK, JON GIL BELTZA, LICENCIADO EN
ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA, DERECHO, SECRETARIO-
ASTEASUKO UDALEKO BITARTEKO INTERVENTOR INTERINO DEL
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK, EXCMO. AYUNTAMIENTO DE
ASTEASU,

ZIURTATZEN DU:

CERTIFICA:

2023ko ekainaren 17an Asteasuko Udalbatza osatzeko bilkura egin zela; AFAn 206 atalaren salbuespenarekin, honako akta hau luzatu da:

Que con fecha 17 de junio de 2023 se celebró sesión constitutiva del Pleno del Ayuntamiento de Asteasu; con la salvedad del art. 206 del R.O.F., se ha emitido el acta siguiente:

2023ko EKAINAREN 17an EGINIKO ERAKETA BILKURAREN AKTA

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2023ko ekainaren 17an, eguerdiko 12.00etan, 2023ko maiatzaren 28an eginiko hauteskundeetan hautatuak izan ziren ondoko zinegotziak elkartu dira:

ASTEASU BATUZ (AB)

Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA
Larraitz ALKORTA AIZPURUA.
Pedro Maria IZAGIRRE SARASOLA.
Aitor USANDIZAGA IZAGUIRRE.
Amaia AGIRRE ARRASTOA.
Xabier ROTETA ERKIZIA.
Iosu ARRIKARTE OTEGUI.
Iosu OMEÑACA ALCORTA.

EUZKO ALDERDI JELTZALEA – PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV)

Aitziber EGAÑA CALLEJO.

SINAD30e53e6-88e8-486d-bcb0-b9a733bf5012

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Jon GIL BELTZA bitarteko idazkaria.

Bitarteko idazkariak hitza hartu du. Jakinarazi du bilkura honen helburua dela Udalbatza eratzea, 2023ko maiatzaren 28an tokiko hauteskundeetan izandako emaitzen arabera, betiere Hauteskunde Orokorreko Araubideari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.1 artikulua agintzen duenari jarraiki eta Toki Udalbatzen Antolaketa eta Funtzionamenduko Erregelamenduaren 37.1 artikulua arabera. Gai Zerrenda ondorengo izanik:

- Udalbatzaren eraketa.

- Alkatearen hautaketa eta jabetza hartzea, hala badagokio.

Bitarteko idazkariak adierazi du indarreko legeriari jarraiki zinegotzi hautetsi guztiek aitortu dituztela bateraezintasun-arrazoiak izan daitezkeenak eta ondasun eta jarduerak, eta horiek Udaleko Interes Erregistroan jaso direla.

Bitarteko idazkariak adierazi du Toki Korporazioen Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Araudiaren 36.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki, neurriak hartu dituztela kutxako kontaketa egiteko eta Udalaren eskudiruzko izakinen eta balioen frogagiriak prest daudela espedientean. Udal Ondasunen Inbentarioari dagokionez, eguneratu egin da, eta izapidetzeko prest dago.

Jarraian, Adin-mahaia osatu da, Hauteskunde Orokorreko Araubideari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.2 artikulua aurreikusten duenaren arabera. Mahaia hautaturiko zinegotzi zaharrena den Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA andreak eta zinegotzi gazteena den Iosu ARRIKARTE OTEGUI jaunak osatu dute. Idazkari lanetan Jon GIL BELTZA jauna arituko da, Asteasuko Udaleko Bitarteko Idazkaria.

Mahaiburuak bilkura hasitzat eman du.

Mahaiko idazkariak irakurri ditu aldez aurretik emandako egiaztagiri guztiak, hau da, hautaturiko zinegotzien nortasun egiaztagiriak, eta mahaikideek Zonalde honetako Hauteskunde Batzordeak igorritako ziurtagiriekin frogatu eta ondo daudela adierazi dute.

Jarraian, Bitarteko Idazkariak Hauteskunde Orokorreko Lege Organikoaren 108.8 artikuluan xedatutakoaren arabera, euskaraz zinegotziei ondorengo galdera egin die: "Zin egiten duzue edo hitz ematen al duzue ohorez eta kontzientziaz, Asteasuko Udaleko zinegotzi karguak dakarzkizuen betebeharrak zintzo beteko dituzuela Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa eta Euskadiko Autonomi Estatutua Estatuko oinarrizko arau gisa errespetatu eta errespetaraziko duzuela?".



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA andreak, Larraitz ALKORTA AIZPURUA andreak, Pedro Maria IZAGIRRE SARASOLA jaunak, Aitor USANDIZAGA IZAGUIRRE jaunak, Amaia AGIRRE ARRASTOA andreak, Xabier ROTETA ERKIZIA jaunak, Iosu ARRIKARTE OTEGUI jaunak, Iosu OMEÑACA ALCORTA jaunak, eta Aitziber EGAÑA CALLEJO andreak "Bai, legeak hala aginduta" erantzuna eman dute.

Beraz, Udalbatza eratu dela aitortu da.

Bitarteko Idazkariak adierazi du hauteskunde-araubide Orokorren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koaren, 196 artikulua agintzen duenari jarraiki, Udalbatza eratzen den osoko bilkura berean alkatea hautatu behar dela, aipatutako aginduak finkatzen duen prozeduraren arabera. Alegia:

- a) Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak izan daitezke alkategai.
- b) Horietako bateren batek gehiengo osoaren botoak erdiesten baditu (gutxienez bost boto, hain zuzen ere) zuzenean izendatua izango da.
- c) Eta horietako bakar batek ere ez baditu lortzen gehiengo osoaren botoak, orduan, herrian botorik gehien erdietsi duen zerrendaburu izango da Alkate.
- d) Bototan berdinketa emango balitz, zozketa egingo litzateke.

Jarraian, adin-mahaiak taldeei galdera egin die, eta EAJ/PNV taldeak uko egin dio alkatetzarako hautagaia aurkezteari.

ASTEASU BATUZ taldeak hautagai hau izendatu du:

- Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA (AB)

Ondoren Zinegotzi guztiak beren botua esku altxatuta eman dute, emaitza ondorengo hau izan delarik:

Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA (AB) hautagaia izateko proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

- Aldeko botuak: 8 (Maria Pilar Legarra Cortajarena andrea, Larraitz ALKORTA AIZPURUA andrea, Pedro Maria IZAGIRRE SARASOLA jauna, Aitor USANDIZAGA IZAGUIRRE jauna, Amaia AGIRRE ARRASTOA andrea, Xabier ROTETA ERKIZIA jauna, Iosu ARRIKARTE OTEGUI jauna, Iosu OMEÑACA ALCORTA jauna).
- Kontrako botuak: 0
- Abstentzioak: 1 (Aitziber EGAÑA CALLEJO andrea).

Bozketaren arabera, gehiengo osoa lortu duenez, Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA andrea Asteasuko Udaleko alkate andrea izendatu da.

Bitarteko Idazkariak, Hauteskunde Orokorreko Lege Organikoaren 108.8 artikuluan xedatutakoaren arabera, galdera hau egin dio euskaraz alkate andreari: “Zin egiten duzu edo hitz ematen al duzu ohorez eta kontzientziaz, Asteasuko Udaleko alkate andre karguak dakarzkizun betebeharrak zintzo beteko dituzula Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa eta Euskadiko Autonomi Estatutua Estatuko oinarrizko arau gisa errespetatu eta errespetaraziko duzula?”

Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA alkate andreak erantzun du: “Bai, legeak hala aginduta”.

Jarraian, Bitarteko Idazkariak Udaleko Alkatetza makila eman dio Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA andreari; azken honek Alkate andrea kargua onartu du eta Alkate andrea karguaren jabetza hartzen du.

Jarraian, Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA alkate andreak hau esan du:

“Lehenengo nire eskerrak gaur hemen biltzen diren zinegotziei niregan jarri duten konfiantzagatik alkatetza hau aurrera eraman ahal izateko. Baita ere Asteasu Batuz taldearen izenean, eskerrak gure aldeko hautua egin duzuen eta babesa adierazi diguzuen herritarroi ere. Jakinarazten dizuet jarrera eraikitzailea eta irekia dugula, eta herritar guztiekin batera lanean jarraitu nahi dugula, baita ere botoa eman ez digunekin ere.

Jada pasa dira 12 urte lehenengo aldiz Alkatetza hartu nuenetik eta benetan ohore bat da niretzat, baina azkenekoz hartuko dudala ere garbi dut, etorkizunean gazteagoei erreleboa ere eman behar zaie eta. Oraindik badut indarra eta ilusioa eta lanerako konpromiso irmoarekin hartzen dut makila honek duen esanahia.

Gaur benetan eskertu nahi ditut kargua uzten duten zinegotziak, Asteasuren alde egin duten lanagatik. Mila esker Joseba Txapartegi, Joxe Ramon Ayerza, Pili Iturbe, Unai Otegi eta Joseba Gomez ere. Baina ez urrutira joan, denon laguntza behar du Udal batek eta.

Talde lana izango da gure ikurra, eta modu arduratsuan hartzen dugu gure eginkizuna, gure Udala herritarrentzat Udal irekia, gertukoa, parte hartzailea, euskaltzalea eta feminista izaten jarrai dadin.

Mila esker denoi”.

Mintzaldia amaitu da.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Eta deialdiko helburua bete ondoren, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du 12:10 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Bitarteko Idazkariak.

Eta horrela jasota gera dadin, eta behar Y para que así conste, y surta los efectos
diren ondorioetarako, honako ziurtagiria oportunos, emito el presente certificado,
luzatzen dut, Alkate Andrearen con el visto bueno de la Sra. Alcaldesa,
oniritziarekin, Asteasun. en Asteasu.

O.I. / VºBº

ALKATE ANDREA / LA ALCALDESA

Lege Zaharren Enparantza, z/g, 20159 ASTEASU (Gipuzkoa) / Tel.: 943 69 19 07 / Fax: 943 69 31 06 / e-mail: udala@asteasu.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SINAd30e53e6-88e8-486d-bcb0-b9a733bf5012**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01410>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01410>



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Ziurtagiria Udalbatzarra 2023.06.17

CSV/EKS:

SINAd30e53e6-88e8-486d-bcb0-b9a733bf5012